

Gabriel kantugile

por *Natxo de Felipe*

Mundu honetan belarri txarreko gizakirik izan bada berau Gabriel izan da. Hura kantatzen edo eta saiatzen behintzat ikustea aski barregarri zen; horregatik akaso bere fuertea ez zen hitz jarioa (horretan trebeekak apaizak kulpitoetan), euskaraz ez zen inolako berba lapiko. seguru asko, eta beste euskaldun berri askoren antzera (batez ere belarri txarrekoen antzera) euskal azentu abominablea zuelako.

Eta erretorika haundiko gizona ez izanik, nola eraiki zuen ongi hausnartu eta mamitutako hizkera propioa? Gabrielelek hamaika solasaldi aspertuetan zehar aipatu zidanez hiru maisu oinarritzko ezagutu zuen beti bere euskalduntze prozesuan, hots: klasikoak, bertsolariak eta ipuin zaharrak; eta hizkuntz arazoetan irakaslerik liberalenak izanda gertatu zen gertatu beharrekoa, bere garaian hizkuntzak idazle gehienak menderatzen zituen bitartean bera zela hizkuntza hobekien menderatzen zuen eskritorea.

Sano hedatua da Gabrielelek euskal kantugintzarekiko zituen lokarriak kojunturalak zirelakoaren iritzia, honela adierazten du ere bere foto-biografiaren egile den Anjel Zelaieta apaiz damutuak baina hori ez da inondik ere egia. Nahiz eta, lehen esan belarri txarra zela medio, euskal aire ederren gozoa bere osotasunean dastatu ezin, Gabrielelek bertsolariak eta kantutegiak sakonean ezagutzen zituen eta bazekien, jakin ere, zeinen diferente den eta izan behar den paper gainean irakurtzeko edo eta jendearen aurrean plaza erdian kantatu behar den bersoa.

Sarri hitz egin da eta eztabaidatu Gabrielen poesia, ipuin, teatro, artikulugintza eta abarrez, baina gutxiengitan aipatzen da bere beste fazeta bat, eta hau ere inportantzia haundikoa noski. Gabriel euskal kulturaren mundu nimitsoan showman bat zen, plaza gizon saltsero animatzaile eta probokatzailerik, gure herri kontserbatibo honek behar zuen eta behar duen horrelako pipermin ziria.

Eta egia esan fazeta honek liluratzen zuen Gabriel; onerako nahiz txarrerako saltsa guztietan egotea, askotan sufrimendu frango ekarri bazion ere, gustatu zitzaion.

Eta bere idea bitxiak, bere probokazio finak, baita bere mezu sozial-politikoak, eta hitz batetan esateko bere poesia era bat plazaratzeko besteren bozak usatu zituen berea usatu ezinean (bera baino poeta kaxkarragoren batek atrebentzia haundiagoa ukan zuen horretarako).

Bere liburuetan hamaika bertso eta poema dago kantariantzako gonbidapena dirudiela eta batzu M. Laboa, X. Lete, L. Iriondo, Urko, Oskorri, eta abar luze batek erabiliak, baina hortik kanpo ezagunak dira enkarguz edo, Maite Idirin, Naikari eta batez ere guretzat eginak.

Gehienbat guretzat, Oskorrirentzat, egin zuen hamaikatxo kantu, eta enkarguz baino hobe esanen genuke elkar lanean burutuak direla. Askotan gitarra bat lagun genuela ekin eta ekin ibili ginen bertsoei bueltaka gustokoa, soinu egokienekoa, erritmo aproposkoa egin eta desegiten, eta aipatu beharrekoa da zuen abilezia, fintasun, sintesis erreztasuna, imajinen ditzira, ritmo eta armoia. Gurengandik zerbait ikasiko bazuen ere ez zen ezertxo ere izan irakatsi zigunaren parean, kantatzeko hizkera tradizionala menperatuz gaurkotzen eta iraultzen baitzekien lokarririk gabe.

Gabriel denbora luze ez dela joan zen baina, dena hain bizkor doan garaiotan eta bereziki presaka dabilen herri honetan, gauzak aldatuz doaz eta kantugintzako hizkera poetikoa ere, halaber derrigorrezkoa zaioke alor honetan sarturik dagoen edozeini Gabrielen emaitzak ezagutzea. Oraingoan ere klasiko bilakatu zaigu.

— textos selecciona-



